




EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

Etxebizitza, Herri Lan eta  
Garraio Saila

Etxebizitzako Behatokia  
Observatorio de la Vivienda

Etxebizitzaren Kontu  
Satelitea: EAErako  
hurbilpena

2009ko iraila



OBSERVATORIO  
VASCO DE LA  
VIVIENDA

## AURKIBIDEA

<b>1. ZER DA ETXEBIZITZAREN KONTU SATELITEA</b> .....	<b>3</b>
1.1. SARRERA .....	3
1.2. METODOLOGIA ETA AZTERTZEKO ESPARRUA MUGATZEA .....	3
<b>2. ETXEBIZITZAREN KONTU SATELITETIK ATERATAKO EMAITZA NAGUSIAK</b> .....	<b>5</b>
2.1. ESTATU MAILAKO EMAITZA NAGUSIAK .....	5
2.2. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EMAITZA NAGUSIAK .....	7
<b>ERANSKIN ESTATISTIKOA</b> .....	<b>9</b>

## TAULEN AURKIBIDEA

1. taula.	Etxebizitzaren sektorean barne hartutako jarduerak eta EJSN-93rekin bat etortzea.....	4
2. taula.	Etxebizitzarekin zerikusia duten produktuetako batzuen baliabideen gutzitza, 2005 (milioi eurotan).....	5
3. taula.	Etxebizitzaren sektorearen produkzioa jarduera-adarren arabera, Espainia, 2005 (milioi eurotan).....	6
4. taula.	Etxebizitzaren sektorearen produkzioa jarduera-adarren arabera, EAE, 2005 (milioi eurotan).....	7
5. taula.	Etxebizitzarekin zerikusia duten produktuetako enpleguen gutzitza, Espainia osoa, 2005 (milioi eurotan).....	9
6. taula.	Etxebizitzaren produkzio eta ustiapenaren kontuak, Espainia osoa, 2005 (milioi eurotan).....	10
7. taula.	Produkzioa jarduera-adarren arabera, EAE eta Espainia, 2005 (milioi eurotan).....	11
8. taula.	Etxebizitzarekin zerikusia duten zergak, EAE eta Espainia, 2005 (milioi eurotan).....	11

## GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. grafikoa.	Etxebizitzaren sektorearen produkzioaren banaketa jarduera-adarren arabera. EAE eta Estatuak, 2005. ....	7
2. grafikoa.	Etxebizitza sustatzearekin eta eraikitzearekin zerikusia duten jardueren banaketa, tipologiaren arabera. EAE eta Estatuak, 2005.....	8



## 1. ZER DA ETXEBIZITZAREN KONTU SATELITEA?

### 1.1. SARRERA

Ezaguna da Espainiako ekonomiaren baitan azkeneko hamarkadetan ekonomiako jarduera giltzarri gisa eraikuntzak eta etxebizitzaren salerosketak izan duten garrantzi handia, baita neurri txikiagoan bada ere, euskal ekonomian izan dutena ere. Alde horretatik begiratuta, etxebizitzaren sektorea hazkunde ekonomiko orokorraren ondorioz zabaldu da, baina hazkunde horren kausa ere izan da aldi berean, jarduera horrek sistema ekonomiko osoaren baitan duen izaera biderkatzaile handia kontuan izanda. Haatik, benetan txarrak izan dira prozesu horren azken ondorioak, ekonomia osoari begiratuta. Hori ere aski ezaguna da.

*Etxebizitzaren sektoreak* ekonomian duen pisu globalaren analisia *kontu satelitea* izenekoaren bidez egiten da. Kontu satelitea errealitate ekonomikoaren alderdi zehatz bat neurtzeko eta deskribatzeko eskema da. Kontu nazionalen metodologia eta oinarriko irizpideak erabiltzen ditu, baina aztertzeo esparrua zabaltzen du eta aztertu nahi den fenomeno bere osotasunean tratatzea eta karakterizatzea ahalbidetzen duten desagregazioak hartzen ditu barne.

Honakoa etxebizitzaren kasua litzateke, kontabilitate nazionalan (edo Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalan, EJSN) zuzeneko ordainik ez duena. Aitzitik, hainbat sektorek eta jarduerak osatzen dute. Alde horretatik begiratuta, etxebizitzaren kontu satelitearen helburua da etxebizitzaren sektoreari dagozkion ekonomia-fluxu guztien deskribapen kuantitatibo egituratu eta zehatza egitea. Gainera, hori eginez gero, etxebizitzaren sektoreak ekonomia osoan duen pisu globala zenbatzea ahalbidetuko duten adierazleen multzoa lortu ahal izango dugu.

Orain dela gutxi, Espainiako etxebizitzaren kontu satelitearen eredu zuzen baten ereduak egin du Espainiako Gobernuak Etxebizitza Ministerioak, 2005ekoak, hain zuzen ere<sup>1</sup>. Etxebizitzaren sektoreak Espainiako ekonomiaren egituran dituen zeregin eta pisu erreala buruzko ezagutza estatistikoa hobetzea du xede kontu horrek. Kontu horrek estatu-mailako emaitza zehatzak eskaintzen ditu eta autonomia-erkidegoen mailako zenbatespen azpimarragarriak ere hartzen ditu barne.

Hori kontuan izanik, txosten honen xedea da ariketa estatistiko konplexu horren emaitzak aztertzea, Euskal Autonomia Erkidegoaren mailan, betiere estatuaren testuinguruan kokatuta.

### 1.2. METODOLOGIA ETA AZTERTZEKO ESPARRUA MUGATZEA

Etxebizitzaren kontu satelitea prestatzeak ezinbesteko eskakizun du aztertu beharreko eremua mugatzea, hau da, "berariazko produktuak" edo aztertu beharreko fenomenoarekin, kasu honetan etxebizitzaren sektorearekin, lotura zuzena duten produktuak identifikatzea.

Alderdi horretatik begiratuta, etxebizitzak eraikitzearekin, birgaitzearekin, eskuratzearekin eta erabiltzearekin zerikusia duten jarduera ekonomikoaren multzoak osatzen du etxebizitzaren sektorea.



Ondorengoekin zerikusia duten jarduera guztiak har genitzake definizio horren baitan:

- Etxebizitzen eraikuntza (obra berria), higiezinaren sustapena barne hartuta, baita birgaitzea ere, adierarik zabalenean ulertuta, hau da, gaur egungo etxebizitzak mantentzearekin zerikusia duten jarduerak, egun dugun etxebizitzen parkea egoera ezin hobean izateko konponketa txikiak ere barne direla.
- Etxebizitzak eskuratzearekin eta erabiltzearekin zerikusia duten jarduerak, honakoak barne direla: etxebizitzak (norberarenak<sup>2</sup> eta besterenak) alokatzeko zerbitzuak, etxebizitzen salerosketako zerbitzuak, bizitokitarako lurren salerosketarekin lotura duten zerbitzuak, jabetza eskualdatzearekin zerikusia duten bestelako zerbitzuak edo, azkenik, etxebizitzen inguruko notario- eta erregistro-zerbitzuak.
- Etxebizitzarekin zerikusia duten baina merkatukoak ez diren bestelako zerbitzuekin lotura duten jarduerak, hau da, administrazioek eskaintzen dituzten eta merkataritzakoak ez diren zerbitzuak, betiere etxebizitzaren esparrukoak direnak.

**1. taula. Etxebizitzaren sektorean barne hartutako jarduerak eta EJSN-93rekin bat etortzea**

Jarduera ekonomikoan multzoa	EJSN-93	Izena
Etxebizitzak eraikitzearekin eta birgaitzearekin zerikusia duten jarduera ekonomikoak	7011	Etxebizitzen sustapen inmobiliarioa
	452111	Etxebizitza bateko eta biko higiezinak eraikitze lanak (lehendik zeuden etxebizitzak birgaitzeko jarduerak barne direla).
	452112	Hainbat etxebizitzatako higiezinak eraikitze lanak (lehendik zeuden etxebizitzak birgaitzeko jarduerak barne direla).
Etxebizitzak eskuratzearekin eta erabiltzearekin zerikusia duten jarduera ekonomikoak	701211	Etxebizitzak salerosteko zerbitzuak
	701212	Bizitegitarako lurra salerosteko zerbitzuak
	702011	Etxebizitzak norberaren kontura alokatzeko zerbitzuak
	703115	Jabetza eskualdatzearekin zerikusia duten bestelako zerbitzuak
	74115	Etxebizitzen inguruko notario- eta erregistro-zerbitzuak
Etxebizitzarekin zerikusia duten eta merkatukoak ez diren bestelako zerbitzuak	75120	Administrazio publikoek eskaintzen dituzten eta merkatukoak ez diren zerbitzuak

<sup>1</sup> Honako helbide honetan ikus daiteke 2005eko Espainiako Etxebizitzaren Kontu Satelitea: <http://www.mviv.es/es/xls/estadisticas/ENCUESTAS/CSV.PDF>

<sup>2</sup> Egokia litzateke azpimarratzea kontu satelitearen metodologiaren baitan sendiguneez bizitoki gisa erabiltako etxebizitzak kasu guztietan sortzen dituela alokairuko zerbitzuak, sendigunea bere jabetzako etxebizitzan bizi (alokairu egotzia) nahiz egiaz jabeak etxebizitza hirugarren bati alokatu.



Iturria: Etxebizitza Ministerioa, Etxebizitzaren Kontu Satelitea

## 2. ETXEBIZITZAREN KONTU SATELITETIK ATERATAKO EMAITZA NAGUSIAK

### 2.1. ESTATU MAILAKO EMAITZA NAGUSIAK

2005erako Espainiako Etxebizitzaren Inkesta Satelitetik lortutako emaitza nagusiak honako datuetara laburbil ditzakegu:

- Etxebizitzaren sektorea barne-produktu gordinaren (BPG) % 16,8 zen Espainian, uneko prezioetan, eta soldatapeko enpleguaren % 15,1 sortzen zuen. Etxebizitzen sustapen eta eraikuntzaren pisua % 8,2koa zen BPGn, eta alokairuarena, errealaz zein egotzia, % 6,8.
- Espainian etxebizitzaren sektoreak guztira sortutako baliabideek 232.755,3 milioi euroko balioa izan zuten, eta guztizko produkzioa, aldiz, 220.744,6 milioi eurokoa izan zen<sup>3</sup>. Produktio-tasen arabera, merkatuko produkzioa % 70,3koa izan zen (155.224,6 milioi eurokoa), eta amaierako erabilera propiorako produkzioa (alegia, etxebizitza propioen egotzitako alokairuen balioa) % 28,3koa (62.537,8 milioi eurokoa). Azkenik, merkatukoa ez zen produkzioa (administrazio publikoen zerbitzuak, etxebizitzarekin zerikusia dutenak) izan zen gainerakoa, hots, % 1,4 (2.982,2 milioi euro).

**2. taula. Etxebizitzarekin zerikusia duten produktuetako batzuen baliabideen guztizkoa, 2005 (milioi eurotan).**

Baliabideak guztira, jarduera-adarren arabera	Produkzioa, tipoen arabera			Produkzioa guztira, jarduera-adarren arabera
	Merkatuko produkzioa	Amaierako erabilera propiorako produkzioa	Merkatukoa ez den produkzioa	
<i>Produkzioa guztira</i>	155.224,6	62.537,8	2.982,2	220.744,6
▪ Sustapena	31.196,8	0	0	31.196,8
▪ Eraikuntza eta birgaitzea	103.927,9	0	0	103.927,9
▪ Etxebizitzak salerosteko zerbitzuak	4.795,9	0	0	4.795,9
▪ Balorazio-zerbitzuak	634	0	0	634
▪ Notarioak eta erregistratzaileak	4.596,8	0	0	4.596,8
▪ Etxebizitza propioen egotzitako alokairuak	0	62.537,8	0	62.537,8
▪ Etxebizitzak alokatzeko zerbitzuak	8.949,1	0	0	8.949,1
▪ Lurzorua salerostearekin zerikusia duten zerbitzuak	1.124,1	0	0	1.124,1
▪ Administrazio publikoen zerbitzuak	0	0	2.982,2	2.982,2
<i>Produktuen gaineko zerga garbiak</i>	11.948,2	0	0	11.948,2
<i>Inportazioak</i>	0	26,5	0	26,5
<b>BALIABIDEAK GUZTIRA</b>	<b>167.172,8</b>	<b>62.564,3</b>	<b>2.982,2</b>	<b>232.755,3</b>

Iturria: Etxebizitza Ministerioa, Etxebizitzaren Kontu Satelitea, 2005

- 2005eko Espainiako produkzioaren guztizkoaren % 61,2 (135.124,7 milioi euro) etxebizitzak sustatzearekin eta eraikitzearekin zerikusia duten jardueri zegokion. Bestalde, etxebizitzak erabiltzearekin zerikusia duten jardueri zegokien produkzioa 71.486,9 milioi eurokoa izan zen,

<sup>3</sup> Baliabideen eta produkzioaren arteko aldea zergei (11.948,2 milioi euro) eta inportazioei (26,5 milioi euro) dagokie.

hots, guztizkoaren % 32,4koa. Gainerako zatia (14.133,0 milioi euro, guztizkoaren % 6,4) etxebizitza eskuratzearekin eta hori lortzearekin zerikusia duten jarduera ekonomikoetara zegoiena zen.

### 3. taula. Etxebizitzaren sektorearen produkzioa jarduera-adarren arabera, Espainia, 2005 (milioi eurotan).

Jarduera ekonomikoak	Espainia	%
Sustapen eta eraikuntzarekin zerikusia dutenak	135.124,7	61,2
■ Obra berria	106.907,8	48,4
■ Birgaitzea	28.216,9	12,8
Etxebizitza erabiltzearekin zerikusia dutenak	71.486,9	32,4
■ Norberaren etxebizitza	62.537,8	28,3
■ Etxebizitzak alokatzea	8.949,1	4,1
Etxebizitza eskuratzearekin zerikusia dutenak	10.026,7	4,5
Etxebizitzarekin zerikusia duten beste jarduera batzuk	4.106,3	1,9
<b>Produkzioa guztira</b>	<b>220.744,6</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Etxebizitza Ministerioa, Etxebizitzaren Kontu Satelitea, 2005

- Etxebizitzaren sektoreko produkzioari produktuen arabera banatuta erreparaturuz gero, obra berriko etxebizitzek guztizko produkzioaren balioaren ia erdia osatzen zutela egiaztatu ahal izango dugu (% 48,4), hau da, 106.907,8 milioi euroko balioa. Etxebizitzen birgaitzeak, aldiz, 28.216,9 milioi euroko balioa (guztizkoaren % 12,8) izan zuen. Bestalde, alokairuko zerbitzuak 71.486,9 milioi euroko produkzioaren balio zenbatetsia izan zuen (guztizkoaren % 32,4), eta horien artean gehienak etxebizitza propioetatik zetozen balio egotzietara zegoenak ziren (62.537,8 milioi euro, alokairu errealetatik zetozen 8.949,1 milioi euroen ondoan). Azkenik, etxebizitzak eskuratzeari lotutako produktuek (balorazio-zerbitzuak, salerosketa, notarioak eta erregistratzaileak) 10.026,7 milioi euroko balioa izan zuten, edo, guztizkoaren % 4,5.
- Etxebizitzaren inguruko produktuen gaineko zerga garbiak estatu osoan 11.948,2 milioi eurokoak izan zirela balioesten da (alegia, sektoreko guztizko produkzioaren % 5,4). Honela bana dezakegu zergen guztizko zenbateko hori: etxebizitzaren eraikuntzaren gaineko zergak (4.669,7 milioi euro), lehendik zeuden etxebizitzaren jabetza eskualdatzearen gaineko zergak (5.417,3 milioi euro), lurzorua eskualdatzearen gaineko zergak (1.348,9 milioi euro) eta, azkenik, alokairuaren gaineko zergak (512,3 milioi euro). Produkzioa zergapetzen duten zergak, ondasun higiezinaren gaineko zergak, 5.294 milioi eurokoak izan ziren.
- Enpleguen ikuspegitik erreparatzen badiogu gaiari (alegia, produkzioaren xedeari), amaierako eskaria<sup>4</sup> guztizkoaren % 98,8koa izan zen. Bitarteko eskaria, aldiz, gainerakoa, % 1,2 (230.001,7 eta 2.753,6 milioi euro, hurrenez hurren) (Ikus 4. taula eranskinean). Bestalde, kapital-eraketa gordinak osatzen zuen azken eskariaren % 67,4, eta etxeetako amaierako kontsumoak azken eskari horren % 30,9 (154.954,6 eta 71.165,8 milioi euro, hurrenez hurren). Kapital-eraketa gordinaren baitan, % 85,9 kapital finkoaren eraketa gordinari zegokion, eta gainerako zatia, % 14,1, izakinen aldakuntzari (133.140,3 eta 21.814,3 milioi euro, hurrenez hurren).

<sup>4</sup> Sendiguneen amaierako kontsumoko gastua, administrazio publikoen azken gastua eta kapital-eraketa gordinak hartzen ditu barne.



## 2.2. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EMAITZA NAGUSIAK

EAERI dagokionez, honakoak dira estatuko etxebizitzaren kontu satelitetik ondoriozta daitezkeen emaitza nagusiak:


- 2005ean, EAeko etxebizitzaren sektoreko produkzioaren guztizkoa 8.865,1 milioi eurokoa izan zen, hau da, Espainiako guztizko produkzioaren % 4,0. Garrantzitsua da aipatzea euskal ekonomiak % 6,2ko pisua zuela urte horretan bertan estatuko merkatuko prezioaren BPGn, INEren Espainiako Eskualde Kontabilitatearen arabera. Horrek agerian uzten du autonomia-erkidegoko etxebizitzaren sektoreak estatuko guztizkoan duen pisu erlatiboa beste sektore ekonomiko batzuetakoa baino txikiagoa zela nabarmen.

4. taula Etxebizitzaren sektorearen produkzioa jarduera-adarren arabera, EAE, 2005 (milioi eurotan).

Jarduera ekonomikoak	EAE	%
Sustapen eta eraikuntzarekin zerikusia dutenak	4.841,9	54,6
■ Obra berria	3.439,9	38,8
■ Birgaitzea	1.402,0	15,8
Etxebizitza erabiltzearekin zerikusia dutenak	3.562,5	40,2
■ Norberaren etxebizitza	3.315,3	37,4
■ Etxebizitzak alokatzea	247,2	2,8
Etxebizitza eskuratzearekin zerikusia dutenak	249,8	2,8
Etxebizitzarekin zerikusia duten beste jarduera batzuk	210,9	2,4
<b>Produkzioa guztira</b>	<b>8.865,1</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Etxebizitza Ministerioa, Etxebizitzaren Kontu Satelitea, 2005


1. grafikoa. Etxebizitzaren sektorearen produkzioaren banaketa jarduera-adarren arabera. EAE eta Estatuak, 2005.



Iturria: Etxebizitza Ministerioa, Etxebizitzaren Kontu Satelitea, 2005

- Kontu satelitearen arabera, euskal produkzioaren % 54,6 inguru etxebizitzaren sustapen eta eraikuntzari zegokiona izan zen, % 40,2 etxebizitza erabiltzeari, eta gainerako zatia, % 5,2, etxebizitza eskuratzearekin eta lortzearekin zerikusia duten gainerako jarduera ekonomikoei. Estatu osoko datuekin alderatuta, interesgarria da egiaztatzea eraikuntzarekin zerikusia duten jarduera ekonomikoei Euskal Autonomia Erkidegoan zuten pisua estatuko batez bestekoa baino txikiagoa zela (% 54,6 eta % 61,2, hurrenez hurren). Aitzitik, etxebizitza erabiltzearekin zerikusia duten zerbitzuak (alokairu errealek nahiz egotzitakoak barne hartuta) ugariagoak ziren Euskal Autonomia Erkidegoan, estatuko batez bestekoarekin alderatuta (% 40,2 gure erkidegoaren kasuan eta % 32,4 Espainiaren kasuan).
- Eraikuntzarekin zerikusia duten jardueren baitan, obra berriko etxebizitzek osatzen zuten sektorearen guztizkoaren % 38,8 (horien artean gehienak etxebizitza libreak ziren). Aldiz, % 15,8 ziren etxebizitza birgaitzearekin zerikusia zutenak. Espainia osoarekin alderatuta, obra berriko etxebizitza libreak pisu txikiagoa izan zuten Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan (% 33,4, estatuko % 45,9ren ondoan), nahiz eta ez izan hala babestutako etxebizitzaren kasuan (% 5,4, % 2,6ren ondoan)<sup>5</sup>. Bestalde, etxebizitza birgaitzearekin zerikusia duten jarduerak estatuko batez bestekoen gainetik izan ziren (% 15,8, estatuko % 12,8ren ondoan).

**2. grafikoa. Etxebizitza sustatzearekin eta eraikitzearekin zerikusia duten jardueren banaketa, tipologiaren arabera. EAE eta Estatu, 2005.**



(\*) etxebizitzaren sektorearen produkzioaren guztizkoaren gaineko %  
Iturria: Etxebizitza Ministerioa, Etxebizitzaren Kontu Satelitea, 2005

- Etxebizitza erabiltzearekin zerikusia duten jarduerari dagokienez, beren osotasunean hartuta EAEn estatuan baino garrantzitsuagoak ziren, dagoeneko esan denez. Hori batez ere etxebizitza propioen alokairu egotzietan zor zitzaizkien (sektoreko guztizkoaren % 37,4, % 28,3ren ondoan). Merkatuko alokairu errealek, aldiz, garrantzi gutxiago zuten hemen, konparazioan (sektoreko guztizkoaren % 2,8, % 4,1en ondoan).
- Azkenik, etxebizitzarekin zerikusia duten zergei buruzko informazioari begiratuta, EAEn

<sup>5</sup> Dena dela, badirudi zenbateko horiek zertxobait gutxiesten dutela etxebizitza babestuaren pisua: 2005ean EAEn hasitako etxebizitza guztien % 28 ziren babes publikoko etxebizitzak, estatuan % 10 ziren bitartean.



kasuan 385,5 milioi eurokoa izan zen bildutako zenbatekoa (produkzioaren guztizkoaren gaineko % 4,3, estatukoa baino ehuneko txikiagoa). Horien artean 218,5 milioi euro produkzioa zergapetzen duten zergei zegozkion (alegia, ondasun higiezinaren gaineko zergei), eta gainerako zatia produktuak zergapetzen dituzten zergei zegokien (hau da, ondare-eskualdatzearen gaineko zergei). Horien zenbateko zenbatetsia 167 milioi eurokoa izan zen.

## ERANSKIN ESTADÍSTIKOA

**5. taula Etxebizitzarekin zerikusia duten produktuetako enpleguen guztizkoa, Espainia osoa, 2005 (milioi eurotan).**

	<b>ENPLEGUAK</b>
Bitarteko eskariaren guztizkoa	2.753,6
Amaierako kontsumoko gastuak guztira	74.148,0
Sendiguneen/irabazi asmorik gabeko erakundearen amaierako kontsumoko gastuak guztira	71.165,8
Administrazio publikoaren amaierako kontsumoko gastuak	2.982,2
Kapital-eraketa gordina	154.957,8
Bertakoen kapital finkoaren eraketa gordina	130.289,5
Bertako ez direnen kapital finkoaren eraketa gordina	2.850,8
Kapital finkoaren eraketa gordina guztira	133.143,5
Izakinen aldakuntza	21.814,3
Esportazioak	.895,8
Azken eskariaren guztizkoa	230.001,7
<b>ENPLEGUAK GUZTIRA</b>	<b>232.755,3</b>

Iturria: Etxebizitza Ministerioa, Etxebizitzaren Kontu Satelitea, 2005

**6. taula Etxebizitzaren produkzio eta ustiapenaren kontuak, Espainia osoa, 2005 (milioi eurotan).**

Jarduera-mota	GUZTIRA	Sustapen eta eraikuntzarekin zerikusia duten jarduera ekonomikoak		Etxebizitza eskuratzearekin zerikusia duten jarduera ekonomikoak			Etxebizitza erabiltzarekin zerikusia duten jarduera ekonomikoak		Etxebizitzarekin zerikusia duten beste jarduera ekonomiko batzuk	
		Sustapena	Eraikuntza eta birgaitzea	Etxebizitzak salerosteko zerbitzuak	Balorazio-zerbitzuak	Notarioak eta erregistratzaileak	Etxebizitza propioen egotzitako alokairuak	Etxebizitzak alokatzeko zerbitzuak	Lurzorua salerostearrek in zerikusia duten zerbitzuak	Administrazio publikoen zerbitzuak
1. Guztizko produkzioa oinarritzko prezioetan	220.744,6	31.196,8	103.927,9	4.795,9	634,0	4.596,8	62.537,8	8.949,1	1.124,1	2.982,2
2. Bitarteko kontsumoak guztira	52.209,6	3.317,5	41.766,9	995,2	311,5	254,6	935,7	2.710,7	224,8	1.692,7
3. Balio erantsiaren guztizkoa	168.535,0	27.879,3	62.161,0	3.800,7	322,5	4.342,2	61.602,1	6.238,4	899,3	1.289,5
3.1. Soldatapekoen ordainsariak	43.525,8	2.518,1	24.852,7	2.772,0	47,4	365,0	10.813,5	797,6	70,0	1.289,5
3.2. Produkzioaren gaineko beste zerga garbi batzuk	5.504,8	0,0	210,8	0,0	0,0	0,0	4.838,2	455,8	0,0	0,0
3.3. Kapital finkoaren kontsumoa	15.693,6	9.358,7	6.328,4	0,0	6,5	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
3.4. Ustiapeneko soberakin garbia	103.810,8	16.002,5	30.769,1	1.028,7	268,6	3.977,2	45.950,4	4.985,0	829,3	0,0
4. Inbertsiorako laguntzak	534,5									
5. Soldatapeko enplegua	2.332.592	123.104	1.215.624	231.000	1.817	5.000	634.600	56.972		64.475
6. Betetako enpleguak	2.346.981	123.104	1.215.624	235.000	11.206	6.000	634.600	56.972		64.475

Iturria: Etxebizitza Ministerioa, Etxebizitzaren Kontu Satelitea, 2005

**7. taula                   Produkzioa jarduera-adarren arabera, EAE eta Espainia, 2005 (milioi eurotan).**

Jarduera ekonomikoak	Azpijarduerak	EAE	Espainia	
Sustapen eta eraikuntzarekin zerikusia duten jarduera ekonomikoak	▪ Obra berriko etxebizitza	3.439,9	106.907,8	
	– Librea	2.960,3	101.212,7	
	– Babestua	479,6	5.695,1	
	▪ Birgaitutako etxebizitza	287,3	5.082,6	
	– Librea	276,9	4.897,1	
	– Babestua	10,4	185,5	
	▪ Eraikinak birgaitzea	622,8	15.040,0	
	▪ Etxebizitzaren kontserbazioa	491,9	8.094,3	
	<b>Sustapena eta eraikuntza guztira</b>	<b>4.841,9</b>	<b>135.124,7</b>	
Etxebizitza erabiltzearekin zerikusia duten jarduera ekonomikoak	▪ Etxebizitza propioen alokairuak	3.315,3	62.537,8	
	– Etxebizitza nagusia	3.217,6	60.138,5	
	– Bigarren etxebizitza	97,7	2.399,3	
	▪ Etxebizitzen bestelako alokairuak	247,2	8.949,1	
	– Etxebizitza nagusia	201,0	8.118,7	
	– Bigarren etxebizitza	46,2	830,4	
		<b>Etxebizitza erabiltzea guztira</b>	<b>3.562,5</b>	<b>71.486,9</b>
		– Etxebizitza nagusia	3.418,6	68.257,2
	– Bigarren etxebizitza	143,9	3.229,7	
Etxebizitza eskuratzearekin zerikusia duten jarduera ekonomikoak	▪ Balorazio-zerbitzuak (tasatzaileak)	16,2	634,0	
	▪ Salerosketa-zerbitzuak (HJAK)	119,3	4.795,9	
	▪ Notario eta erregistratzaileen zerbitzuak	114,3	4.596,8	
		<b>Etxebizitza eskuratzea guztira</b>	<b>249,8</b>	<b>10.026,7</b>
Etxebizitzarekin zerikusia duten beste jarduera ekonomiko batzuk	▪ Lurzoruarekin zerikusia dutenak	19,7	1.124,1	
	▪ Administrazio publikoekin zerikusia dutenak	191,2	2.982,2	
		<b>Bestelako jarduerak guztira</b>	<b>210,9</b>	<b>4.106,3</b>
Etxebizitzarekin zerikusia duten jardueren produkzioaren guztizkoa		<b>8.865,1</b>	<b>220.744,6</b>	

Iturria: Etxebizitza Ministerioa, Etxebizitzaren Kontu Satelitea, 2005

**8. taula                   Etxebizitzarekin zerikusia duten zergak, EAE eta Espainia, 2005 (milioi eurotan)**

	EAE	Espainia
Ondare-eskualdatzeen gaineko zergak (produktuak)	167,0	6.074,2
Ondasun higiezinaren gaineko zergak (produkzioa)	218,5	5.294
Zergak guztira	385,5	11.368,2

Iturria: Etxebizitza Ministerioa, Etxebizitzaren Kontu Satelitea, 2005

